

# 5 Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat?

**Itziar Idiazabal Gorrotxategi**

UPV/EHU – Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak  
Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedra  
itziar.idiazabal@ehu.es

Sarrera-data: 2011-12-11 | Onartze-data: 2011-12-22

**Laburpena.** Itziar Idiazabal irakasleak munduko hizkuntza-aniztasunaren iraunkortasunari begira heziketa eleanitzak izan behar duen paperaz idatzi du bere artikulua. Nola erantzun -behar bezala- uniformetasuna eta homogeneotasuna bilatzen duen eskolatik, hain anitza den ikasleen nortasun eta gaitasun bakoitzari? Nola lortu eskolan (ama)hizkuntzaren erabilera anitzari aurre egingo dion prestakuntza? Horiek dira artikuluko honetan gaitzat hartutako galderak. Gizarte-mailako hizkuntza-aniztasuna eta hiztun eleanitzak gizarte modernoaren errealitatean kokatzen ditu -munduko perspektibatik hartuta-, eta hizkuntza-aniztasuna mantentzeko irtenbide bakarra hizkuntza gutxiak ere i(ra)ka(t)si beharreko ideia azaltzen. Heziketa eleanitzak leku propioa hartzen du ideia horren baitan, jakina, horretarako, hezkuntza-zientzien ekarpenak integratu beharraz ohartzen duelarik. • **Hitz-gakoak:** hizkuntza-aniztasuna, heziketa eleanitza, hizkuntza gutxiak, sekuentzia didaktikoak.

**Abstract.** **Is plurilingualism another statutory utopia of education?** Prof. Itziar Idiazabal deals in her paper with the role that should be played by plurilingual training with a view to the sustainability of language plurality worldwide. How is one to properly address each identity and competence of the students who are so diverse from the school that seeks uniformity and homogeneity? How is one to achieve the training that will address the plural use of the (mother) tongue at school? These are the questions that the paper tackles. It puts language plurality of a social level and plurilingual speakers into the reality of modern society –seen from the world perspective–, and explains the idea of needing to teach/learn minority languages as the only means of maintaining language plurality. Naturally, plurilingual education assumes its own place within this idea, while warning of the need to integrate the contributions of education sciences for this purpose. • **Key words:** language diversity, multilingual education, minority languages, didactic sequences.

## SARRERA

**I** Eskolari hezkuntza eleanitza eskatzea utopia bat dela esango du norbaitek; hala izango da behar bada, baina hau ere derrigorrezko utopia dela esan behar. Bronckart eta Schnewlyk 1991ean ama-hizkuntzaren didaktika derrigorrezko utopia bezala bataiatu zuten. Nola erantzun, izan ere, uniformetasuna eta homogeneousuna bilatzen duen eskolatik hain anitza den ikasleen nortasun eta gaitasun bakoitzari behar bezala erantzutea, eta nola lortu eskolan (ama)hizkuntzaren erabilera anitzei aurre egingo dien prestakuntza? Hogeitazero urte geroago, artikulu hartan esaten zena, hizkuntza aniztasunetik birbegiratu dugu. Hizkuntza aniztasuna gizartean (immigrazioaren ondorioz) komunikabideetan, lan munduan, politikan, geroz eta nabariago agertzen zaigu, eta eleaniztasuna norbanakoaren formazioan ezinbesteko erronka bihurtu da. Aspalditik askok gogoratzen duten bezala, bestalde, munduko hizkuntza aniztasuna mantenduko bada, norbanakoa ere eleaniztun beharrean da. Askorentzat utopia izango da, baina perspektiba apur batekin begiratzen bada ez dugu hain urrun, hain ezinezko ikusiko, eta batez ere, ez dago beste erremediorik!

Hizkuntza aniztasunean bizi gara denok, nahiz eta askoren aho-bellarriak hizkuntza bat bakarra, edo asko jota bi soilik entzun edo erabiltzen duten. Berrito ere eskolara jo behar ote da beste eskakizun batekin? Zorionez edo zoritxarrez, baietz esan behar. Gizarteak nahi badu eskolaren zeregina izango da hori ere. Eleaniztasuna etxe-giro batzuetan bizi da, baina gehienetan bat edo bi dira erabiltzen diren hizkuntzak, beraz, berrito esanda, nahi badugu, eskolak zeregina du honetan ere. Jakina, eskolan egiten denak askoz arrakasta handiagoa izango du gizartean ere laguntza baldin badu; eleaniztasuna onartu ez ezik osatu, eta balioztatu norberaren hoberako, bizibide ardurei hobeto erantzuteko eta giza harreman armoniatsuagoak lortzeko. Alegia, barne eta kanpo balioz hornitua baldin badago arrakastatsua izango da eleaniztasuna ere (Amorrortu et al, 2009).

Eskolaren eta etxearen eginbeharrak elkarren osagarri egite aldera, etxean ematen ez dena eskolak eman behar du. Bestela lortzen ez dena lortzeko daude eskolak. Zorionez, gaur, etxean, eskolatik kanpo, gauza asko ikasten da, eta hori ere eskolak jakin beharko luke denbora hobeto aprobetxatzeko. Garai batean, eskolara joan behar zen hizkuntza idatziaren erabileran abiatu eta murgiltzeko. Etxe gehienetan irakurketa edo idazketa jardunik apenas zegoen. Gaur, eginkizun hauetan eskolak laguntza handia jasotzen du kanpotik; gure giroko familia gehienetan

---

**Nola erantzun,  
izan ere,  
uniformetasuna  
eta  
homogeneousuna  
bilatzen  
duen eskolatik  
hain anitza den  
ikasleen  
nortasun eta  
gaitasun  
bakoitzari behar  
bezala  
erantzutea, eta  
nola lortu  
eskolan  
(ama)hizkuntza-  
ren erabilera  
anitzei aurre  
egingo dien  
prestakuntza?**

---

***Eleaniztasuna  
norbanakoaren  
formazioan  
ezinbesteko  
erronka bihurtu  
da.***

***Askorentzat  
utopia izango da,  
baina  
perspektiba apur  
batekin  
begiratzen bada  
ez dugu hain  
urrun, hain  
ezinezko ikusiko,  
eta batez ere, ez  
dago beste  
erremediorik!***

asko elikatzen da irakurketa eta idazketa; etxeetan liburuak eta egunkariak ugariak ez badira ere gauza asko irakurri behar da; era guztietako paper eta iragarkietan, bilgarrietan, eta pantailetan eten gabe dauzkagu irakurtzera behartzen gaituzten mezuak; oharrak idazten dira, paperean edo telefonoan, edota interneten; ordenagailuetan dabilta umeak eten-gabe idatziarekin harremanetan. Hizkuntza handi dominanteak ikasteko ere, Hegoaldean gaztelera edo frantsesa Iparraldean esaterako, ez dago eskolaren hainbesteko beharrik. Hizkuntza horiek eskolatik kanpo ere ikasten dira leku gehienetan, batez ere, adin batetik aurrera. Hizkuntza kontuetan, eskolaren zereginak berrikusi eta birplanteatu beharra dago, bestela alperrik galdu egingo da denbora eskoletan, umeak dagoeneko ikasi dituen gauzetan, eta beharrezko abileziak ez dira ikasiko.

Ikusmira hau gogoan dugula, behar bada, eleaniztasuna lorgarriagoa izango da. Lantxo honetan, eta abiatzeko, eleaniztasuna giza mailan eta norbanakoaren baitan zer eta nola ulertu daitekeen aztertuko dugu. Ondoren, eleaniztasunaren aldeko hainbat ekimenen edo praktika egokien berri emango dugu. Eskolak ezin du bakarrik, ezinezkoa da, hone-lako erronka bati aurre egin. Giza zientzien, eta bereziki hezkuntza aldetik eleaniztasunaren alde proposatzen diren printzipio batzuk eta egin daitezkeen zenbait jardun gogoratuko ditugu azken atalean. Agian, horrela, gure helburua ez da hain utopikoa izango.

## **1. HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA HIZTUN ELEANITZAK**

### **1.1. Hizkuntza aniztasuna giza mailan**

Eleaniztasuna edo hizkuntza aniztasuna esaten da munduan nahiz gure artean hizkuntza bi edo gehiago elkarren ondoan ukipenean bizi direla adierazteko. Egoera komuna izan da betidanik hainbat lekutan, (Indian edo Amazoniako hainbat herritan, Yapu eskualdean esate baterako), eta egoera komertzial nahiz politiko ugarietan ere bai mendeetan zehar. Siguán zenak sarri aipatzen zuen Bartzelonako portuan Erdi Aroan hogeitaz hizkuntza baino gehiago hitz egiten zirela, eta itxuraz elkar ulertzeko arazo handiegirik ez zuten. XIX mendeko nazio/estaduen eraikitzearen ondorioz nazio bat hizkuntza bat politika zabaldu eta inposatu da, bereziki European, eta haren eragineko beste herrialde askotan ere bai, Estatu Batuetan, esaterako. Hainbestekoa izan da ideologia honen eragina eta arrakasta, non zentzuzkoena eta zabalduena den ustea, sentidu komunekoa esango zaio erdaraz, normala, elebakarra izatea dela. Nolanahi ere, ez dago gaur European estaturik bere lurraldean hizkuntza bizi bat eta bakarra duenik. Estatu batzuetan onartuago eta zainduago,

eta besteetan ukatuago edo menperatuago, denetan daude estatuaren izena daramana eta ofiziala edo nazionala deitzen denaz gain hainbat hiztun erkidego, indar eta bizitasun ezberdinekin (Barreña et al., 2005).

Historian zehar gertatu diren hizkuntza ukipen egoerek, askotan, eta banan-banaka, hizkuntza askoren desagertzea ekarri dute. Galera horiek historian zehar nola bizitu diren jakitea ez da erraza, baina gaur badakigu arriskuan bizi diren hizkuntza erkidego guztiek kezka bizi dutela bere hizkuntzaren galera (Martí et al. 2005), eta ahal duten heinean bere hizkuntzaren biziberritzea lehenetsun handienetakoa bihurtzen dela gizatalde horientzat. Oso adibide esanguratsua iruditu zaigu, berriki Kolonbian ezagutu dugun nanuyo hiztun komunitatea. 50 bat hiztun izango dira, Amazonia aldean bizi dira, eta orain hogeita hamar urte ia desagertu ziren droga trafikorearen eraginez jasandako sarrasketan. Euren hitzetan, gaur aitona diren lau gizon salbatu ziren eta bere hizkuntza, eta bere oroimenak, kantuak eta erritualak gogoratu nanuyo hizkuntza bere seme-alabei irakastea erabaki zuten nahiz eta haien hizkuntza espainolez nahikoa ordezkatu egon. Gaur bizibide eta ondasun oso eskasekin jarraitzen duten arren, harro erakusten dute kapaz direla euren artean nanuyo hitz egiteko, eta badirela zenbait gazte eta haur bere hizkuntza etxean ikasia dutenak eta ondorengoei transmititzeko prest daudenak.<sup>1</sup>

Gaur ukipen egoera bortitzean bizi dira hizkuntza gutxitu gehienak, guztiak ez esatearren. Apur bat urrun begiratzeko ikus dezagun, adibidez, Afrikan zenbat hizkuntza bizi diren kinka larrian, batetik europar hizkuntzen erasoan, eta bestetik beste afrikar hizkuntza indartsuagoen eraginari ezin aurre eginik; wolofera, swahilia, yoruba, hausa eta beste afrikar hizkuntza nahikoa indartsu batzuk, —mundu mailan gutxiuak badira ere—, beren lurraldeetan txikiagoen erasotzaile bihurtu dira (Uranga et al. 2008). Ez da erraza egoera horietan zer egin daitekeen asmatzea.

Hizkuntza aniztasuna edonork bizi du gaur, bere gizartea elebiduna delako, immigrazioaren ondorioz, edota ingelesaren eraso bereziki nabarmen eta zabalduari esker, adibiderik ezagunenak aipatzearen. Immigrazioa kultur edo hizkuntza kontuan eraso edota indar garrantzitsua da, eta betidanik hizkuntza aniztasunean eragin oso handia izan du. Gaur giza mugimenduek, askotan bortizki kanpotik eraginak, inoiz izan ez duten tamaina dute, eta mundu osoan, izan ere. ACNUR-en (2010) datuen arabera, deserriratuen<sup>2</sup> kopuruak urtez urte ari dira handitzen: 2000 urtean 22,3 miloi baziren, 2009an 42 milioira iritsi ziren. Immigratu guztiak ez dira herrialdetik kanporatutakoak, gehienak, herrialde berean hiri handietara joaten direnak dira (2009 urtean, 42 miloi horietatik 26 barne immigrazioarenak izan ziren). Baina immigrazio

---

**Zorionez, gaur, etxean, eskolatik kanpo, gauza asko ikasten da, eta hori ere eskolak jakin beharko luke denbora hobeto aprobetxatzeko.**

**Ondo dakigu  
hizkuntza ukipen  
egoera guztiak  
ezegonkorrak  
direla, nolabait  
diglosian bizi  
dira; zenbat eta  
gutxituagoa  
hizkuntza orduan  
eta desagertze  
arriskuari aurre  
egiteko zailtasun  
handiagoa.**

guztiak dira hizkuntzen biziraupenerako arriskutsuak, eta barne imigrazioa besteak bezain indartsua (Idiazabal, 2011).

ACNURen 2010eko iraileko buletinetik ateratakoa da ondoko adibidea:

Yesid tucano etniako gazte indigena bat da, 26 urtekoa Villavicencio hirian bizi da. Horrela hasten da bere testigantza: (ACNUR) “VILLAVICENCIO, Colombia, 16 de agosto — Tengo 26 años y debería hablar en mi dialecto, pero ya no lo recuerdo. Aprendí a hablar español para poder comunicarme con las personas de la ciudad y el dialecto se fue perdiendo”. ([www.acnur.org/](http://www.acnur.org/))

Ondo dakigu hizkuntza ukipen egoera guztiak ezegonkorrak direla, nolabait diglosian bizi dira; zenbat eta gutxituagoa hizkuntza orduan eta desagertze arriskuari aurre egiteko zailtasun handiagoa. Hizkuntza gutxitu asko (%90?) mehatxupean, eta desagertzen ari direla gauza eza-guna da. Hainbat ikerlarik, (Comrie, Matthews & Polinsky, 1996; Nettle & Romaine, 2000; Crystal, 2000, Hagège, 2000, Wurm, 2001; Brezinger (Ed.), 2007...) egoeraren gordintasuna zehazki erakutsi digute. UNES-COk beste alde batetik eta hainbat hizkuntzalariren artean “hizkuntzen bizitasun eta arriskuen markoa” erabaki zuen, eta sarean arriskuan dau-den hizkuntzen Atlasa plazaratu zuen (azken edizio inprimatua, Moseley ed. 2010). Bertan aurreko markoaren arabera hizkuntza gutxituak bost irizpideren edo egoeren arabera sailkatzen dituzte arrisku txikia-gotik desagerpenera. 1) Zaurgarri “vulnerable” (hizkuntza haur gehie-nek erabiltzen dute, baina zenbait eremutara mugatzen da, nagusiki etxe-girora). 2) Arriskuan (haurrek ez dute lehen hizkuntza gisa ikasten, guraso eta haurren arteko transmisioa etenda dago). 3) Arrisku larrian (nagusiak eta oso adinekoak erabiltzen dute, baina ez guraso gazteek edo haurrek). 4) Egoera kritikoan (hiztun gazteenak aitona-amonak dira eta oso gutxitan erabiltzen dute). 5) Galdua (hiztunik ez dagoenean). Geroz eta informazio gehiago dugu munduko hizkuntzen egoerari buruz. Halere, oraindik oso gutxi dakigu zergatik mantendu diren hizkuntza batzuk eta desagertu beste batzuk. Urrutirago joan gabe, ez dakigu zergatik euskara mantendu edo garatu den hizkuntza berezitu bezala Europako mendebaldean, bere inguruan eta garai berberean egiten ziren besteak desagertu edo ordezkatuak izan diren bitartean.

Ondo dakiguna hau da: gaur hizkuntza gutxituak egiten dituzten erkidego horietako hiztun asko, gehienak behar bada, elebidun edota eleanitzak direla, hizkuntza aniztasunean bizitzeko ohitura dutela, eta nolabait elebakartasunaren murriztasunari aurre egiten jakin dutela.

Hizkuntza bat mantentzeko elebakarra izan behar denaren hipotesia ez da frogatu, eta alderantzizkoa berriz, bai. Gurean esate baterako, euskaldun elebidun eta eleanitzak izan dira euskararen bizindarra mantentzeko ahalegin gehien egin dutenak, behar bada arriskuaren jakitun izan direlako. Eleaniztasuna gaitasuna baldin bada (gero aztertuko dugu kontu hau) gehien garatu dutenak, derrigortuta garatu badute ere, hizkuntza gutxituetako hiztun elebi/eleanitzak direla ere esan daiteke.

## **1.2. Hiztun eleanitzak**

Eleaniztasuna, norbanakoaren gaitasun edo konpetentzia bezala, Europako Erreferentzia Markoan (2001/2005:129) esate baterako, horrela planteatzen da: hiztunek hizkuntza ezberdinetan komunikatzeko duten gaitasuna. Gaitasun bezala konplexua eta osagarri asko dituen bezala ageri da, eta beti ere hizkuntzaren funtzionalitateari begira, alegia, tokian-tokian komunikatzeko behar diren bitartekoei eta beharrei begira definitzen da. Hiztunak hizkuntza ezberdinetan dituen gaitasunak elkarren osagarri eta aberasgarri diren ustea dago, bestalde, definizio honen oinarrian. Beste era batera esanda, hiztun bat bi hizkuntza edo gehiago erabiltzeko, alegia, haietan komunikatzeko gai denean hiztun eleanitza dela esango da.

Esan beharrik ez dago, gizakia gai dela bi, hiru eta hizkuntza gehiago komunikatzeko moduan ikasteko, txiki-txikitatik ere bai, eta bi, hiru edo gehiago jakiteak ez duela esan nahi bakarria dakienak baino okerrago hitz egingo duenik. Elebakarrak, ondo eta gaizki hitz egiten dutenak dauden bezala, elebi/anitzak ere hobeto edo okerrago erabil ditzake bere hizkuntzak. Garai batean, hizkuntza baten lekuan bi sartuz gero okerxeago, "estuxeago" ibiliko zirenenaren ustea zen nagusi, edota horrelako gauzak esaten zen elebakartasuna indartzeko. Zoritxarrez oraindik elebakarrak, eta boteretsuak, asko dira munduan, eta gure artean ere bai; eta aipatu ikusmira, hiztun elebakar idealarena, ez da erabat desagertu, baina ikerketa zientifikoek, eta geroz eta jende gehiagoren praktikak ere argi erakusten dute bi, hiru eta hizkuntza gehiago ere ondo ikasi eta erabil ditzakeela edozein hiztunek.

Atal hau laburbilduz gogora dezagun, alde batetik, hizkuntza aniztasuna geroz eta gertukoagoa eta arruntagoa den errealitate bezala irudikatu daitekeela, eta norbanakoaren gaitasun bezala ere edonorentzat eskuragarri edo beharrezko zerbait bezala planteatzen dela. Munduko hizkuntza aniztasuna mantentzeko, bestalde, irtenbide bakarria hizkuntza gutxituak ere, ikasi beharreko hizkuntza merkatuan sartzea izango da.

---

***Halere, oraindik oso gutxi dakigu zergatik mantendu diren hizkuntza batzuk eta desagertu beste batzuk. Urrutirago joan gabe, ez dakigu zergatik euskara mantendu edo garatu den hizkuntza berezitu bezala Europako mendebaldean, bere inguruan eta garai berberean egiten ziren besteak desagertu edo ordezkatuak izan diren bitartean.***



---

**Ondo dakiguna  
hau da: gaur  
hizkuntza  
gutxituak egiten  
dituzten erkidego  
horietako hiztun  
asko, gehienak  
behar bada,  
elebidun edota  
eleanitzak direla,  
hizkuntza  
aniztasunean  
bizitzeko ohitura  
dutela, eta  
nolabait  
elebakartasunare  
n murriztasunari  
aurre egiten  
jakin dutela.**

## **2. ELEANIZTASUNA GARATZE ALDERA, ZER DA LAGUNGARRI?**

**I** Hasteko, esan dezagun, hizkuntza gutxituen aldeko politika guztiak, haiek normalizatzeko egiten diren ahaleginak, hizkuntza aniztasunaren aldeko ekimenik lehenenak eta oinarritzkoenak direla. Ingelesa ikas/irakastea eleaniztasunaren aldeko izan daiteke, baina kontrakoa da gehienetan (Skutnabb-Kangas, 2000). Hainbat lekutan hala izan da. Bertako hizkuntza ordezkatu egin baitu. Gutxituak berriz, nahita ere ezin egin izango lukete handia ordezkatu; eta haien normalizazio helburua ere ez da bestea ordezkatzereina izaten, bestearekin elkarreraginean garatzea baizik. Gehituz, hiztunak eta gizartea elebi/eleanitz bihurtzea litzateke helburua, eta hizkuntza gutxitu horiek desagerpenetik babestea, denentzat aberatsago, anitzago, armoniatsuago izango den gizarte baten bila.

Immigrazioaren ondorioz, gure gizarteek hizkuntza eta kultur ekarpen berriak dituzte. Hizkuntza eta kultur aberastasuna datorrenarentzat bezala da bertakoarentzat, baina horrela ikustea ez da beti erraza, ez eta ohikoa ere. Hainbat herrialdetan egin dira, eta egiten dira zentzu horretako ekimenak, eta horiek dira eredu izan behar dutenak: jaialdiak, erakusketak, zinema eta bestelako kultur produkzio elebi/eleanitzak, azpigituluak bertsio orijinaletan, liburu azoka eleanitzak, ... Bertako gutxituari inolako aukerarik eta lehentasunik ukatu gabe, beste hizkuntza bat, batez ere gutxitua bada, agerraraztea kultura eta hizkuntza aniztasunaren aldeko ekimena izango da, eta beraz lehentasuna izan behar duena. Ekimen kulturalak ez ezik hizkuntza eskubideen alorrean ere eginkizun ugari agertzen dira eremu honetan, aniztasunaren bidetik bideragarri eta aberasgarri direnak. Ikusi adibidez, Aierdi & Uranga (Ed.) (2008) liburuan euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideen inguruan biltzen diren gogoetak; material interesgarria da auzi honetan aurrera egiteko.

Europako Kontseiluak eman zuen aurrera pauso garrantzitsuetariko Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta (1992) izan zen hizkuntza eskubideen alorrean, eta hainbat estatutan, formalki bederen, hartu diren erabakiak baikortasunez onartu behar dira.

Erakunde berberak, eta irakaskuntzari begira bestalde, 2001 urtean abian jarri zuen Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Markoa. Haren babesean sortutako Portfolio Proiektua ere, besteak beste, baliabide emankorra izan daiteke eleaniztasunaren profil ezberdinak irudikatu, balioztatu eta agerian jartze aldera. Norbanakoaren eleaniztasunerako ibilbidea ez baita eskola bidez

sortutakoa soilik; are gehiago, eskola baino askoz lehenago izan da gizakia eleanitz, eta gaur immigrazioak derrigorrez sortzen dituen eleanitzak ere ondo babestu eta balioztatu ditzake portfolio ekimenak. Eleaniztasunaren aldeko Europako Kontseiluaren ahalegin hau, oro har, elebakartasuna arrisku eta pobrezia bezala ikusarazteko oso ekimen baliagarria litzateke, nahiz eta bertan hizkuntza gutxituek ez duten traetaera edo aipamen berezirik.

Hizkuntza aniztasuna gizartearentzat eta norbanakoarentzat aberasgarri eta beharrezkoa dela azpimarratzeko UNESCOren ekimenak ere oso aproposak iruditzen zaizkigu. Eta hemen bai, hizkuntza gutxituek, arriskuan dauden hizkuntzek, leku berezia hartzen dute, Nazio Batuei eta UNESCOri, Kultura, Hezkuntza eta Zientziaren ardura duen erakunde bati dagokion ardura behingoz bere gain hartuz. Informazioa zabaltzeko, hizkuntzen egoera hobeto ezagutzeko, arriskuen berri izan eta haiek saihesteko ekimenak bultzatzeko, aniztasunaren abantailak hobeto ezagutu eta haien aldeko sentsibilizazioa garatzeko.

Beste kultur ondarearekin batera, hizkuntzarena babestu eta zaindu beharrekoa dela garbi uztea ez da beti erraza izan UNESCOn (Idiazabal, prentsan). Baina azken urteetan badirudi gauzak aldatzen ari direla, eta bereziki Nazio Batuek 2008 urtea hizkuntzen nazioarteko urtea izendatzea esanguratsua izan zen; urte horretan bertan argitaratu zen sareko Arriskuan dauden Hizkuntzen Atlasaren ere (<http://www.unesco.org/culture/languages-atlas>), etengabe eguneratzen dena. Aipatzekoa iruditzen zaigu 2011 urteko UNESCOren batzar orokorrerako proposatu den hizkuntza aniztasunaren eta formazio eleanitzaren inguruan batzar orokor mundiala egitearen aldeko aldarrikapena ere, (UNESCO, 2011: 187 EX/44/1) eleaniztasun horren osagarri nagusi eta bereziki bultzatu beharrekoak hizkuntza gutxituak direlako.

Gerturago etorri, beharrezko ikusten dugu baita ere hizkuntza aniztasunaren auzia, ekologia eta biologia aniztasunarena bezala, edozein norbanakoren nahiz erakunderen helburu eta interesgune bihurtzeko ahalegina. Euskararen biziberritze ahaleginekin batera, aspalditik ohartu gara munduko beste hizkuntza gutxituekin solidaritate harremanak indartu beharra, batzuen eta besteen ahaleginak, lorpenak, ekimenak konpartituz helburu onartuagoa, zabalduagoa, eskuragarriagoa egingo denaren esperantzarekin lan egitea askoz aberasgarriagoa da; eta emankorragoa ere bai seguruenik.

Euskararen/hizkuntza gutxituen normalizazio eremuetan lortutakoek beste hizkuntza gutxituentzat ere eredugarri izan beharko lukete, bereziki gertuago daudenentzat: komunikabideetan, giza zerbitzuetan,

---

**Esan beharrik ez dago, gizakia gai dela bi, hiru eta hizkuntza gehiago komunikatzeko moduan ikasteko, txiki-txikitatik ere bai, eta bi, hiru edo gehiago jakiteak ez duela esan nahi bakarria dakienak baino okerrago hitz egingo duenik.**



**Munduko  
hizkuntza  
aniztasuna  
mantentzeko,  
bestalde,  
irtenbide bakarra  
hizkuntza  
gutxituak ere,  
ikasi beharreko  
hizkuntza  
merkatuan  
sartzea izango  
da.**

eta jakina, eskolan egindakoak ditugu gogoan. Hasteko, hizkuntzak (ba)direla, gurea bezalako aberastasuna duen giza eraikuntzak direla, eta beraz, gure kultur ondarea aberasten dutela ozenki adierazi behar litzateke. Hizkuntzen ezaugarriak, haien egoera, haiek dakizkienari dagokion aitorpena, eta behar bada, eta aukerak egonez gero, ikasi edo landu nahi duenarentzat laguntza, eta ohorea. Gurean, ez hain aspaldi, gertatu diren jokabide ezkorrak saihestu; zigorraren ordeztaloa, debekuen ordeztaloz errekonozimendua, beldurra eta ezkutatu beharraren ordeztaloz agerpena eta ohorea.

Baina aitorpen guztiak beharrezko izanda ere, erabilera eleanitzak izango dira frogarik indartsuenak eleaniztasuna posible eta jasangarria dela erakusten dutenak. Argitalpenak, komunikabideak, idatziak nahiz ikus-entzunezkoak, merkataritzako produktuen bilgarriak nahiz bestelako informazio baliabideak, paisaia linguistikoa, lan baldintzen eskakizunak, interneteko sare eta erabilera ugariak... eleanitzak izan daitezke eta hala izan beharko lukete. Itzulpen industriak sekulako garrantzia izango du, eta gastu bezala ikusten duenari inbertsio alderdia erakustea komeni da. Inbertsioa kultura eta giza harremanen garapen aberatsago eta orekatuagoen alde.

Gure artean, jada, zigor eta debeku oso agerikorik ez dugu ikusiko, baina ondo dakigu hizkuntza kontuetan, haiek bezain eraginkorrak direla jarrerak. Eta hauen ezagutza ezinbestekoa dela hizkuntza gutxituen alde egiteko. Hizkuntza jarreraren eremua mundu ezezagun bezain konplexua da. Ageriko eta ezkutuko jarrerak eta aurreiritziak dauzkagu hizkuntza batzuen alde edo kontra egitera eramaten gaituztenak. Ikasteko gogoia eta ardura sortzen dutenak, edota kontrakoa bideratzen dutenak. Euskarari buruz erdaldunen jarrerak aztertu genituenean (Amorrortu et al. 2009) ezagunak diren hizkuntzen balio instrumental eta integratzaileez gain, barne eta kanpo motibazioa aipatzen genuen, alegia hizkuntza bat ikasteko beharra, erabakia, barneko onarpenez egiteak arrakastarako aukera gehiago ematen duela, kanpotik, edo behartuta egiten den ikasketak baino. Honek badu garrantzia, jakina, hizkuntza gutxitu bat ikasteko bitartekoak erabakitzeke orduan.

### **3. HEZIKETA ELEANITZA**

#### **I**

#### **3.1. Giza zientzien ekarpenak**

Giza zientzia guztiak eleaniztasunaren alde lirateke: hizkuntzalaritzak hizkuntza guztiak gaitasun linguistiko berdinekoak direla esango digu (Moreno Cabrera, 2000, 2010) eta haien galera giza eraikuntza kultural

garrantzitsuena galtzea dela (Crystal, 2000, adibidez). Soziologiak eta antropologiak giza talde elebi/eleanitzak deskribatu dituenan, hizkuntzarteko harreman onak eta ez hain onak erakutsi ditu; jatorriz eleanitzak diren erkidegoek, normalean bere hizkuntzen arteko elkarren eraginak orekaz mantentzen dituzte; besteetan, hizkuntza arteko desoreka (diglosia) handia denean bitartekoen (diskriminazio positiboa adibidez) beharra erakutsi du aniztasuna mantentzeko; inon ez du erakutsi, alabaina, hizkuntza batek bestea ordezkatu duen kasuetan, berea galdu duen giza taldea pozik eta lasai geratu denik; hizkuntza galerak beti agertzen dira desgrazi, murriztapen eta askotan giza taldearen marjinalizazio ondorioekin (ikus bestela EEBBetako hainbat indio komunitate, bere hizkuntza eta kultura galdua eta giza talde moduan deseginda erakusten duten hainbat adibide); komunitate berean ematen diren hizkuntza harremanek zailtasuna edo gatazka ekar badezakete ere, inoiz ez dira ondo konpontzen homogeneizazioaren bidetik, bat eta bakarra ezartzearen bidetik. Gizataldeen garapena eta orekarako bitartekorik indartsuenetarikoak haien hizkuntza eta kulturen mantentze eta garatzea dela erakutsiko digute soziologia edota politikako ikerlariek (Kymlicka, 1996). Psikologiak, zer esanik ez. Zientzia honek ondo erakusten du adimen nahiz afekzio mailan gizakiaren baliabiderik eraginkorrena, azken batean bere garapen osoa baldintzatzen duena hizkuntza dela; hizkuntzak egiten gaitu adimentsu eta gizakide; bestalde, psikolinguistikak garbi erakusten digu gaitasuna dugula bi, hiru eta hizkuntza gehiago ikasteko eta haiek erabiliz nortasun eta ezagutza mailarik hoberenak lortzeko. Joan den mende erdian, elebitasunak nolabaiteko eskizofrenia ekar zezakeela ere aitortzen zuenik bazen arren (Ries et al. 1932), gaur pertsona eleanitza da prestakuntza aldetik eredu garrien agertzen dena.

### **3.2. Hezkuntza zientzien ekarpen batzuk**

Aurreko atalean aipatutako ekimen ezberdinak eta giza zientzien ekarpenak bitarteko, gaurko hezkuntzaren helbururik garrantzitsuenetakoa hiritar eleanitzak heztea litzateke. Eskakizun honetan, lehen esan bezala, hizkuntza gutxituak derrigorrezko zentralitatea izan behar dute munduko eleaniztasunaren alde jokatu nahi bada behintzat. Nola lortu ordea? Zer eskaintzen digute hezkuntza zientziek erronka honi aurre egiteko?

Eleaniztasuna edo gaitasun eleanitza ulertzeko modu asko egonda ere, ezin ukatu eskolarentzat dela zuzeneko erronka hiritar eleanitzak heztea. Irakaskuntza eleanitza hizkuntza ezberdinak, bi baino gehiago,

---

***Gutxituak berriz, nahita ere ezin egin izango lukete handia ordezkatu; eta haien normalizazio helburua ere ez da bestea ordezkaterena izaten, bestearekin elkarreraginean garatzea baizik.***

**Eleaniztasunaren  
aldeko Europako  
Kontseiluaren  
ahalegin hau, oro  
har,  
elebakartasuna  
arrisku eta  
pobrezia bezala  
ikusarazteko oso  
ekimen  
baliagarria  
litzateke, nahiz  
eta bertan  
hizkuntza  
gutxituek ez  
duten trataera  
edo aipamen  
berezirik.**

ikasteaz gain haiek ikasgai ezberdinak ikasteko erabiltzea bezala defini daiteke:

“multilingual education is education where more than two languages are used as languages of instruction in subjects other than the languages themselves”  
(Garcia , 2006:13).

Zein hizkuntza ikas/irakatsi eta zein mailataraino ikasi galdera zehatz bezain albora ezinak izango dira. Gizarte bakoitzak, bere lehentasunak erabaki beharko ditu, eta horiek garatzeko bitartekoak jarri, irakasleen prestakuntzan, ikastetxeen hornitzean, material egokien sorkuntza eta egokitzean, emaitzen jarraipen ebaluazioan eta jakina, ikerketan. Eta guzti hori gizarteari behar bezala erakutsi behar zaio, haren beharra eta eskakizuna delako eleaniztasuna, eta haren zerbitzuan egiten baita azken finean.

Irakats sistema elebi/eleanitzak asko sortu eta garatu dira azken urteetan. Eskolako hizkuntza ezberdinen arteko integrazio moduak, murgilketazko eredu ezberdinak, edukia eta hizkuntza era integratuan erakusten dutenak, mantenuzko eredu elebidunak, Lehen hizkuntzaren murrizketa edo ordezkapena suposatzen dutenak... eta Manterola eta Berasategik (2011), bilketa nahikoa zehatza egiten dute hizkuntza gutxiak erakusteko sortu diren elebi/eleanitz irakats sistemen ezaugarriak modu kritikoan aztertuz. Euskal Herrian bertan badugu eskarmenturik, eta badakigu posiblea dela ikasle eleanitzak sortzea, tartean euskara ere ondo garatuz (Ikus adibidez, eleanitz proiektua, Elorza & Muñoz, 2011). Ez edozein baldintzetan, jakina. Baldintza hauek aztertu behar lirateke hobeto. Hezkuntza eta hizkuntza zientzietan bada zer ikasteko. Zenbait printzipio eta bitarteko aipatuko ditugu ondoren osotasun pretentsiorik gabe.

### *Gaitasun eleanitza*

Gaitasun edo kompetentzia eleanitza, Coste eta bestek (1997) lehendik proposatzen zuten haritik Europako Erreferentzi Markoan (2001) oso era nabarmenean agertzen da, eta haren ondoren ikerlari askok erabili izan dute printzipio adostu bezala (Guasch & Nussbaum, 2007). Dolz eta Bronckartek (2002) aldiz, ñabardurak, zehaztasunak jarri dizkiote kompetentzia nozioari. Azken hauen iritziz, berezko, unibertsal, norbanakoaren kompetentzia bezala ez luke eragin handirik, lehen hizkuntzaren kasuan ere ez duen bezala; alegia, hizkuntza bat, eta gutxiago bi edo gehiago, ez dira berez, garapen biologikoaren emaitzak. Landu

egin behar dira. Hizkuntza ekintza, jarduna da hizkuntzaren jabetze edo ikaste prozesuaren bitartekoa. Ondorioz, lehen hizkuntzaren kasuan bezalaxe, bigarrenetan ere praktikarik gabe ez dago jabekuntzarik: gaitasun eleanitza baldintza zehatz batzuen arabera garatu daitekeen abilezia izango da, ez da bi edo hizkuntza gehiagoren batuketa soilia izango, elkarreraginean garatzen dena baizik, non komunak eta bereziak diren ezaugarriak ikasi beharko diren eta elkarrekin kudeatzen ikasi. Erabilera egoeraren eskakizunetara egokituz ikasi hain zuzen ere.

### *Testu-generoa eta sekuentzia didaktikoa*

Hizkuntzek interakzio sozio-diskurtsiboan funtzionatzen badute, hala ikasten direla ere ondorioztatu daiteke Genevako ikerlarien lanetatik (Bronckart, 1996). Eta hau lehen hizkuntza ikasi nahiz bigarren guztiak. Bestalde, hizkuntzak ikastea haietan sortu eta garatu diren testuerak, testu moldeak eskuratzea izango da, testuetan mintzatzen baikara, ahoz zein idatziz (Larringan, 2009). Egia da testu horietan hizkuntza bakoitzak bere gramatika edo sistema formala erakusten duela, berezia, eta hori ere ikasi beharrekoa dela hizkuntza bat mintzatzeko, baina gramatikak soilik ez du hizkuntza baten erabilera posible egiten (Idiazabal, 2008). Gramatika eta testuen arteko loturak eta elkarreraginak nola gauzatzen diren jakitea, hizkuntzen didaktikaren oinarrian dagoen ezagutza da, eta haien ikasketarako baliabiderik emankorra testu generoa izango litzateke (Dolz & Gagnon, 2008). Testu generoetan formaltasun diskurtsibo eta gramatikalak biltzen dira, nolabaiteko egonkortasuna dute, eta hizkuntza ezberdinetan antzeko egiturak erakusten dituzte. Testu-generoa da, bestalde, sekuentzia didaktikoaren oinarria, eta hauek didaktikaren teknologiarik aurreratuenak bezala proposatu daitezke (Dolz & Schenuwly, 1998, Dolz et al, 2001, Larringan & Idiazabal, prentsan). Sekuentzia didaktikoetan (SD)<sup>3</sup> hizkuntzaren mezua, komunikazio gaia, adierazi nahi den edukia, testu genero baten moldean (forma diskurtsibo nahiz gramatikalak kontuan hartuz) irakasten da, eta auto-erregulaziorako nahiz kanpo ebaluaziorako bitarteko zehatzez hornitua dago. Eta baliabide hau, lehen hizkuntzaren didaktikarako asmatu bazen ere, garbi dago bi eta gehiago irakatsi behar direnerako era baliagarria dela.

### *Hizkuntza ezberdinen arteko diskurtso mailako transferentziak*

Lehen esan dugun bezala, badirudi hizkuntza arteko zenbait ezaugarri nahikoa komunak direla, bereziki izaera diskurtsiboa dutenak. Adibidez, ipuin tradizionala bada, hizkuntza edozein izanda ere antzeko moduan antolatuko dira bere edukiak. Sarreran ainguraketa bat egin beharko

---

***Euskararen  
biziberritze  
ahaleginekin  
batera, aspalditik  
ohartu gara  
munduko beste  
hizkuntza  
gutxituekin  
solidaritate  
harremanak  
indartu beharra,  
batzuen eta  
besteen  
ahaleginak,  
lorpenak,  
ekimenak  
konpartituz.***

**Alegia hizkuntza  
bat ikasteko  
beharra,  
erabakia,  
barneko  
onarpenez  
egiteak  
arrakastarako  
aukera gehiago  
ematen duela,  
kanpotik, edo  
behartuta egiten  
den ikasketak.**

**Joan den mende  
erdian,  
elebitasunak  
nolabaiteko  
eskizofrenia ekar  
zezakeela ere  
aitortzen zuenik  
bazen arren (Ries  
et al. 1932), gaur  
pertsona  
eleanitza da  
prestakuntza  
aldetik  
eredugarrien  
agertzen dena.  
baino.**

da hemen eta orainetik urrun jarriko gaituena, eta leku-denbora horretan pertsonaien egoera orekatua agertuko da. Hizkuntza bakoitzak bere erara egiten badu ere denak dituzte hasierako formulak eginkizun horretarako (“Behin batean ba omen zen...”); ondoren aldaketa, desoreka, eta ekintzen momentua letorke, luzeago edo laburrago, baina desorekak ekintzarako beharra, tentsioa, sortuko du; ekintza horiek oreka bidea aurkituko dute, eta bukatzeko konponbidea etorriko da. Testu-molde berarekin jarraituz, badakigu baita ere, egituratze horren bitartekoak, antolatzaileak, izaera berdintsua izango dutela, nagusiki denborazkoak izango dira, eta ipuinaren pasarte nagusiak markatzeko erabiliko dira hizkuntza guztietan. Ezagutza hauek, beraz, baliagarriak dira ikasten den edozein hizkuntzarentzat. Bestela esateko, hizkuntza batean ikasiz gero bestean ere ikasiak izango lirateke. Transferentzia edo mailegatze probetxugarri hau frogatu genuen euskaraz egindako SD baten ondorioz, gaztelerazko emaitzak ere nola garatzen ziren erakutsiaz nahiz eta hizkuntza hartan bereziki ez ziren landu (Idiazabal & Larringan, 1999, 2004).

Gaur sarriro aipatzen den hizkuntzen irakaskuntza integraturako, emaitza hauek eta antzeko beste batzuk askoz gehiago ikertu behar lirateke. Eleaniztasunaren erronkak hizkuntzen didaktikan ikerketa ekimen eta baliabide ondo bideratuak eskatzen ditu.

#### *Material elebidunaren aukera*

Material elebiduna, literaturan nahikoa sarri ikus daiteke, bereziki gurea bezalako hizkuntza gutxituetan. Gure eskolek ez dute ohitura handirik. Are gehiago, kontrako prebentzioa ere izan dugu. Batetik hizkuntzen nahasketa sortu zezakeenaren beldurrez itzulpenak saihesten zirelako; eta bestetik, ikasleen erdararako joerak euskara utzi eta erdara joko zuten uste edo beldurrez. Ez dut uste frogatzen asko egin denik, eta egoera berezietarako, eta behar bada euskara ez den beste hizkuntzetarako, material elebidunak ikertu beharreko aukerak dirudite. Adibide interesgarri horietako bat ematen digute Gagnon eta Deschoux (2008) ikerlariak. Marrazkidun ipuin elebidunekin hizkuntzak era integratuan nola lan egin ikus daiteke lantxo honetan.

Eskolako hezkuntza elebi/eleanitzak heziketaren alderdi guztiak ukitzen ditu eta etxeko lanena ere bai. Material elebidunak eskolarako ez-ezik etxerako ere aukera batzuk ematen dituela erraz ikus daiteke. Esaterako, euskal D ereduko guraso erdaldun askoren kexua edo ardura hauxe izan ohi da: nola lagunduko diegu haurrei etxeko lanak egiten guk euskaraz ez badakigu?. Guraso eta irakasle askok bilatu dituzte

baliabideak, tokian tokiko arazoei aurre egiteko. Adibidez, euskarazko liburuen erdarazko bertsiok izan ohi dira bitartekorik lagungarrienak. Eta ikasleek, gurasoekin lan egiteko, aldi berean euskara eta erdara lantzen dituzte. Lan handiagoa dela? Behar bada bai, baina ez dago zalarrik hizkuntzak lantzeko jardun oso aproposa dela bi hizkuntzetan gauzak ulertu eta azaltzeko eginkizuna.

Material elebidunaz ari garela, ikus-entzunezkoetan ere askoz gehiago egin behar litzateke. Hau ez da eskolaren eremua, baina telebista dela edota interneteko baliabide guztiak direla, eskolaren elikagarri garrantzitsuenak dira. Elebi/eleaniztasuna hedabideetan eta baliabide informatikoetan erronkarik emankorrenetakoa izan daiteke.

### *Bigarren hizkuntzaren erresistentzia emankorra*

Bigarren hizkuntzan irakasteak erresistentzia sortzen duela esango digu Gajok (2009), baina eginkizun horrek ondorio probetxuzkoak ekarriko ditu jakintzen kontzeptualizazio mailan. Antzeko gogoeta iradokitzen du Florisek (1988) Aostako eskola elebidunetan nagusia den italiararen ordeztutako frantsesetik irakasteko erabakia zergatik hartzen duten azaltzeko. Irakasleek gai berri bat azaltzeko orduan, bigarren edo oso ondo ez dakiten hizkuntzan egin behar dutenean hobeto, zehaztasun gehiagorekin, ikasleen arreta atentzio handiagoarekin kontrolatuz egiten dutela; aldiz, haurren ohiko, eta giroan nagusia den hizkuntzan irakasten denean jakintzat edo ulertutzat ematen dira gauzak sarriago, eta ondorioz kontzeptu berrien ulermena ez da hainbeste ziurtatzen.

Hezkuntza elebi/eleaniztasuna elebakarra baino zailagoa izan daiteke ondo egiten bada, baina argi dago askoz emankorragoa ere izan daitekeela. Baliagarriagoa, eta batez ere, ezinbestekoa. Hizkuntza aniztasuna mantendu eta bereziki hizkuntza gutxituen biziraupena ziurtatu nahi bada hizkuntza elebidunak hezi behar dira. Saihestu ezin daitekeen helburua da. Horregatik esaten genuen utopia bezala ikus daitekeen arren, derrigorrezkoa dela. ●

## **ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

ACNUR: <http://www.acnur.org/t3/boletin>

Aierdi, X. & Uranga, B. (Ed.) (2008) *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*. Bilbao: Unesco Etxea, Ikuspegi & Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedra, UPV/EHU.

Almgren, M., Idiazabal I. & Manterola, I. (prentsan) "El aprendizaje del euskera en niños de origen inmigrante: la influencia de la escuela y el entorno". In Jeannot C., Totozani M. Tomc S. (éd.) *Esquisses pour*

---

**Material  
elebiduna,  
literaturan  
nahikoa sarri  
ikus daiteke,  
bereziki gurea  
bezalako  
hizkuntza  
gutxituetan. Gure  
eskoletan ez dute  
ohitura handirik.  
Are gehiago,  
kontrako  
prebentzioa ere  
izan dugu.  
Batetik  
hizkuntzen  
nahasketa sortu  
zezakeenaren  
beldurrez  
itzulpenak  
saihesten  
zirelako; eta  
bestetik, ikasleen  
erdararako  
joerak euskara  
utzi eta erdara  
joko zuten uste  
edo beldurrez.**



- une école plurilingue : contextualiser nos réflexions sociodidactiques*, Y-Harmattan (à paraître fin 2011), coll. Espaces discursifs.
- Amorrortu, E., Ortega, A. Idiazabal, I. & Barreña, A., (2009) *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Bilbao: Eusko Jaurlaritzza/ Gobierno Vasco. ISBN 978-84—457-2945-8.
- Barreña, A. Uranga, B., Idiazabal I., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2005) *Europako Hizkuntzak*, Bilbao: Unesco Etxea, Amarauna, ISBN- 13: 978-84-934779-0-5.
- Brezinger, M. (Ed.) (2007), *Language diversity endangered*, Berlin: Mouton de Gruyter.
- Bronckart J.P. & Schneuwly, B. (1991) La didactique du français langue maternelle: l'émergence d'une utopie indispensable, *Education et Recherche, N° 13*. (Ama-hizkuntzaren didaktika: derrigorrezko utopia baten sorrera, *Zutabe, 29* (1992), 32-47 ).
- Bronckart, J.P. & Dolz, J. (2002). La notion de compétence : quelle pertinence pour l'étude de l'apprentissage des actions langagières ? In J. Dolz & E. Ollagnier (Eds.). *La notion de compétence en éducation*, (pp. 27-44). Bruxelles : De Boeck Université (Série Raisons Educatives).
- Comrie, B., Matthews, S. y Polinsky, M. (1996) *The Atlas of Languages*. Nueva York: Facts on File Inc.
- Coste, D., Moore, D. y Zarate, G. (1997). *Plurilingual and pluricultural competence*. Strasbourg: Council of Europe.
- Crystal, D. (2000) *Language death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dolz J. & Schneuwly B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral : initiation aux genres formels publics*. Paris : ESF.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit; Notes méthodologiques*. Bruxelles : De Boeck.
- Dolz, J. & Gagnon, R. (2008). Le genre du texte, un outil didactique pour développer le langage oral et écrit. *Pratiques, 137/138*, 179-198.
- Elorza, Itziar; Muñoa, Inmaculada (2011): Euskara sustatzeko eleaniztasuna: ikastolen kasua. *Ikastaria, 17*, 2010, 39-66.
- Europako Kontseilua (2001): *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Markoa* (HABE, 2005)
- Floris, P. et al. (1988) " Langues et Savoirs. Due lingue per sapere. Matériaux pour un apprentissage bilingue à l'école primaire de la Vallée d'Aoste. Vol. 1: Principes et Méthodologie ". *Supplément à L'Ecole Valdotaïne n.14*. Aoste.
- Gajo, L. (2009) De la DNL à la DdNL : principes de classe et formation des enseignants. *Langues modernes (les)*, décembre 2009, n°4, p. 15-24, bibliogr.

- Garcia, Ofelia, Skutnabb-Kangas, Tove & Torres-Guzman, Maria E. (Ed.) (2006) *Imagining Multilingual Schools*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Gagnon, R. & Deschoux, C.-A. (2008). L'album bilingue et l'enseignement de la lecture : Un dispositif de formation des maîtres en didactique intégrée des langues. *Babylonia*, 1, 46-53.
- Guasch, O. y Nussbaum, L. (2007): Aproximacions a la competència multilingüe, Bellaterra, Servei de Publicacions de la Universitat Autònoma de Barcelona.
- Hagège, C. (2000) *Halte à la mort des langues*. Paris : Odile Jacob.
- Idiazabal, I. & Larrangan L. M. (1999) "Aprendizajes interlingüísticos de carácter discursivo en un programa de enseñanza bilingüe", *Las lenguas en la Europa Comunitaria III*, Editions Rodopi, Amsterdam-Atlanta GA.
- Idiazabal I. & Larrangan L.M. (2004) "La competencia discursiva: una noción clave para la didáctica de las lenguas y la didáctica del plurilingüismo". In A. M. Lorenzo, F. Ramallo & X.P. Rogríguez-Yanez (Eds.) *Bilingual Socialization and Bilingual Language Acquisition: Proceedings from the Second University of Vigo International Symposium on Bilingualism*, 2002. Vigo: Servizo de Publicacións da Universidade da Vigo, 2004, 611-628.
- Idiazabal, I. (2011) "Migraciones y diversidad lingüística en el País Vasco" in Julio Hernández Borge & Domingo L. González Lopo (Eds.) *Migraciones e interculturalidad. Los hechos y las políticas*. Santiago de Compostela :publicacións Universidade de Santiago de Compostela, 113-130. Idiazabal, I. (prentsan) "Hizkuntza aniztasuna ondare gisa Unescoren ekimenetan: Euskal Herritik begiratu bat" (Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua).
- Kymlicka, W. (1996) *Ciudadania multicultural*. Barcelona: Paidós
- Larrangan, L.M. (2009) Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas-irakaskuntza. *Euskera* 45, 2-1zatia, 505-539 ISSN: 0210-1564.
- Larrangan, L.-M. & Idiazabal, I. (argitaratzeko). "Sekuentzia didaktikoa: ekin-tza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria" *Ikastaria* 18.
- Manterola, I. & Berasategi, N. (2011) *Hizkuntza gutxituen erronkak*, Bilbao:UEU.
- Margonis-Pasinetti, R. (2005) L'enseignement de trois langues par une seule personne: possibilités et limites, *Babylonia, A Journal of language teaching and learning*, 4/2005 ISSN 1420-0007 , 17-18.
- Martí F., Ortega, P. Idiazabal I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. & Amorrortu, E. (Ed.) (2005). *Words and Worlds. World Language Review*: Clevedon U.K.: Multilingual Matters, ISBN: 1-85359-827-5.

- Moreno Cabrera, J.C. (2000) *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza Editorial.
- Moreno Cabrera, J.C. (2010) *Spanish is different*, Madril: Castalia.
- Moseley, Chr. & Asher, R.E.(ed) (2017) *Atlas of the world's languages*. London: Routledge.
- Nettle, D. y Romaine, S. (2000) *Vanishing voices. The extinction of the world's languages*. Oxford: Oxford University Press.
- Ries, M.N., Hugues, J. & Saer, D.J. (1932) El bilingüismo y la educación, Trabajos de la Conferencia Internacional celebrada en Luxemburgo del 2 al 5 de abril de 1928, organizado por la Oficina Internacional de Educación de Ginebra. Madrid : Espasa Calpe.
- Skutnabb-Kangas, Tove (2000). *Linguistic genocide in education – or world-wide diversity and human rights?* Mahwah, NJ & London, UK: Lawrence Erlbaum Associates.
- Uranga, B. Aierdi, X. Idiazabal, I. Amorrortu, I. Barreña, A. Ortega, A.. 2008: *Hizkuntzak eta immigrazioa*. Ikuspegi, AMARAUNA-UNESCO Etxea.
- Nogueroll, A. *El programa Evlang en sociedades multilingües, el ejemplo de Cataluña*. [http://www.aulainterultural.org/IMG/pdf/1.Artur\\_Noguerol.pdf](http://www.aulainterultural.org/IMG/pdf/1.Artur_Noguerol.pdf). [Azken kontsulta: 2011/12/20].
- Wurm, St. (2001) *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing* (2nd edition). Paris: UNESCO Publishing.

## **OHARRAK**

1. Bogotan, 2011ko urrian "Seminario de Educación de lenguas nativas" mintegian, lau aitona haietatik bat entzun genuen bere bi seme gizonduekin eta gazte batekin nanuyo hitz egiten eta han kontatu zuten bere hizkuntzaren berreskuratze esperientzia.
2. ACNURek immigranteei deserriratu, desplazatu deitzen die, izan ere, gehien gehienak behartuta, batzutan bortxaz, gerren ondorioz esaterako, eta besteetan era pausatua goan, herrixketatik hiri handietarako immigrazioa esaterako, immigrazioak ia beti deserrirapena dakar berarekin, eta hizkuntza ordezkapena sarriro.
3. Genevan (Dolz et al. 2001, Dolz & Schenuwly 1998) eta guk ere haien haritik (Larringan & Idiazabal (prentsan) baldintza zehatzak dituen baliabide didaktiko bezala aurkezten dugu eta zentzu hori darabilgu SDA aipatzen dugunean.